

Gipuzkoa: Udalerrien eta udalez azpiko biztanle-entitate txikien izen ofizialak aldatzeko prozedura

Prozedura 2/2003 Foru Arauan ezarri da (EHAA, 2003ko maiatzaren 26a), eta 7 urrats hauetan laburbiltzen da:

1.- Izena aldatzeko prozedura hasteko, udalbatzarra osatzen duten kideen bi herenen aldeko botoa behar da; biztanle-entitate txikiei dagokienez, batzarrak hartutako erabakiz hasiko da.

2.- Espedientea jendaurrean erakutsiko da, gutxienez hogeita hamar laneguneko epean, iragarkiak argitaratuz Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta, dagokion herrian, zabalkunderik handienetakoa duten egunkarietako batean, gutxienez.

3.- Euskaltzaindiaren txostena: gehienez hirurogei laneguneko epean eman beharko du, eskaera jasotzen duen egunetik hasita. Bestela, aldeko irizpena eman duela ulertuko da.

4.- Udalbatzaren erabakia: lehenengo puntuan aipatutako gehiengoak hartuko du aldaketa-proposamena onartu edo bertan behera uzteko; udalez menpeko biztanle-entitateei dagokienez, auzo-batzarrak hartuko du erabaki hori.

5.- Espedientea Foru Aldundira bidaliko da, onar dezan. Aldundiaren erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta eragindako herri-erakundeei jakinaraziko zaie.

6.- Aldaketa Gipuzkoako Udal Erakundeen Foru Erroldan jasoko da.

7.- Udalerrien kasuan, onartutako aldaketak ofizialak izango dira BOE Espainiako Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnean.